

## **Sekula kontatu behar ez nizkizun gauzak**



Bere genero kuttunari leial, ipuin liburu berri bat dakarkigu Iban Zalduak. 32 ipuin dira guztira, gehi kontrazalean doana. Istorio aski laburrak oro har, gaien, estiloen eta tekniken ugaritasuna erakusten digutenak, eta guztietan ere egilearen trebezia: egunerokotasunari azpilak bilatzen dizkieten kontakizunak, fantasiari zirrikitu bat irekitzen diotenak, bikoteen arrakaletan arakutzen dutenak, euskal gatazkari geruza berriak bilatzen dizkietenak, elkarrizketa-bidezkoak, txosten gisakoak, jostalariak, dramatikoak, ironikoak... Fikzioaren festa bat, azken batean.

